



LEHENDAKARITZA
Kanpo Harremanetarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General de
Acción Exterior

EBAZPENA, 2018ko abuztuaren 3koa, Euskadiren Argentina-Mercosurreko ordezkariarena; Euskadik Argentina-Mercosurren daukan Ordezkaritzaren zerbitzuan jarduteko enpresa-arloko arduradun lanpostua hornitzeko deialdia egiteko dena.

Lehendakaritzako egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoa den apirilaren 11ko 70/2017 Dekretuak Euskadik kanpoan dituen ordezkariak arautzen ditu. Horien artean dago Euskadiren Argentina-Mercosurreko Ordezkaritza.

Apirilaren 16ko 222/2013 Dekretuaren bidez, Euskadiren Argentina-Mercosurreko ordezkaria izendatu zen.

Euskadiren Argentina-Mercosurreko Ordezkaritza dagokion langile-azpiegituraz hornitzeko, pertsona bat kontratatzeko prozesuari hasiera eman nahi dio ebazpen honek, Argentinako lan-araudian ezarritakoaren arabera, enpresa-arloko arduradun lanpostua betetzeko, hutsik gelditu baita.

Apirilaren 11ko 70/2017 Dekretuak 18.3 a) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra. Hautaketa-prozesua deitzea lan-kontratu finkoko lanpostu bat hornitzeko, enpresa-arloko arduradun kategorian, Euskadik Argentina-Mercosurren duen Ordezkaritzaren zerbitzura, ebazpen honen eranskinean adierazitako deialdiaren oinarrien arabera.

Azken xedapen bakarra: Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiari hilabeteko epean. Hemen argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera:

<http://www.euskadi.eus/argentinan-lan-eskaintza-deialdia/>

SARA PAGOLA AIZPIRI
Euskadiren Argentina-Mercosurreko ordezkaria

ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRIAK

1.- DEIALDIAREN XEDEA.

1.1.- Deialdi honen xedea da lan-kontratu finkoko lanpostu bat hornitzea Euskadiren Argentina-Mercosurreko Ordezkaritzan, kategoria honetan:

- Enpresa-arloko arduradun lanpostua
- Lanpostuaren kokapena: Euskadiren Argentina-Mercosurreko Ordezkaritza, CABA

1.2.- Lanpostuari dagozkion funtzioak, ordainsaria eta gainerako ezaugarriak oinarri hauetako l. eranskinean daude zehaztuta.

2.- KONTRATATZEKO BALDINTZA OROKORRAK.

2.1.- Euskadiren Argentina-Mercosurreko ordezkariak kontratatuko du hautatutako langilea, hark gauzatuko baititu enpresaburu-ahalmenak, eta hark sinatuko, halaber, lan-kontratu finkoa, Argentinako Errepublikan indarrean dagoen lan-araudiak xedatzen dituen eskubide eta betebeharrak guztiekin. Langilea Argentinan lan egiteko kontratatuko da, eta, herrialde horretan zerbitzuak emateko beharrezkoak desagertuko balitz kontratu-harremana desegingo litzateke.

2.2.- Epaimahaiak hautagai bakar bat aukeratuko du.

3.- IZANGAIEN BETEBEHARRAK.

3.1.- Izangaiek hurrengo puntuan adierazitako baldintzak bete beharko dituzte eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik, eta haiek betetzen jarraitu beharko dute beren lan-kontratua bukatu arte.

3.2.- Honako hauek deialdi honetako probetan onartua izateko nahitaezko baldintzak dira:

- a) Argentinako herritartasuna izatea eta/edo Argentinan ohiko bizilekua duen atzerritarra izatea eta/edo Argentinako lan-araudiak eskatzen dituzten baldintzak betetzea lan-kontratu mugagabea izateko eta Argentinan zerbitzuak eskaintzeko.
- b) Goi mailako unibertsitate titulua izatea hurrengo ezagutza eremuetan:
 - Abokatutza
 - Enpresen administrazioa
 - Ekonomia
 - Industria ingeniariaritzaren edo baliokidea

- Kanpo merkataritza
- Zientzia politikoa
- Nazioarteko harremanak
- Ekonomia eta enpresarekin lotutako beste ikasketak.

Estatu espainiarrean edo Argentinako Errepublikan aitortu gabeko titulazioa bada, titulu horren homologazioa egiaztatzen duen agiri bat eduki beharko da.

- c) Bi urteko esperientzia izatea, gutxienez ere, lanpostuarekin lotutako eginkizunetan (erakunde publikoetan, publiko-pribatuetan edo pribatuetan).
- d) Lanpostuaren funtzioak eta eginkizunak betetzeko beharrezko gaitasun psikofisikoa izatea. Hautaketa-prozesua gainditu ondoren gaitasun fisiko eta psikikoa egiaztatuko da ziurtagiri edo/eta osasun-azterketaren bidez, beraz lan-harremanaren hasiera baldintza hau betetzearen menpean egongo da.

4.- PROZESUARI ETA ESKABIDEAK AURKEZTEARI BURUZKO INFORMAZIOA.

4.1.- Helbide honetan lortu ahalko da prozesuari buruzko informazioa:

Posta-helbidea: Page Personnel
Torre Alem Plaza- Leandro N. Alem 855, piso 9.
C1001AAD. Ciudad de Buenos Aires

Hautaketa-prozesuaren edozein argibiderako, hautagaiek Maria Belen Tintorekin (Page Personnel) harremanetan jarri behar dira hurrengo telefono zenbakira deituz : +54 11 4001-4500/4565, edo helbide elektroniko honen bidez: mariatinto@pagepersonnel.com.ar

4.2.- Deialdi hau Argentinan gehien zabaltzen diren egunkarietako batean argitaratuko da, bai eta enplegurako webgune ezagunetan, eta honako webguneetan ere:

<http://www.euskadi.eus/argentinan-lan-eskaintza-deialdia/>

<https://www.pagepersonnel.com.ar/job-detail/responsible-empresarial/ref/15336>

4.3.- Eskabideak aurkezteko tokia, epea eta modua:

Eskabideak araututako eredu normalizatuan aurkeztuko dira, atal guztiak beteta. Eredu hori oinarri hauen II. eranskinean dago, edo webgune honetan deskarga daiteke:

<http://www.euskadi.eus/argentinan-lan-eskaintza-deialdia/>

Eskabideak, eta horiekin batera aurkeztu beharreko agiriak, hiru modu hauetako batean aurkeztuko dira:

- Page Personnelera bertaratuz, 4.1 atalean aipatutako helbidean (Torre Alem Plaza- Leandro N. Alem 855, piso 9. C1001AAD. Ciudad de Buenos Aires).
- postaz bidalita helbide berera
- posta elektronikoz helbide honetara: mariatinto@pagepersonnel.com.ar ; gogoan izan oinarri hauetan eskatutako agiri guztiak erantsi beharko direla eskaneatuta.

Nolanahi ere, kasu guztietan, **15336 Erreferentzia-zenbakia** agertu behar da.

Eskabideak aurkezteko epea 2018ko abuztuaren 6tik 27ra izango da, biak barne.

4.4. - Datu pertsonalen fitxategia

Izangaiek eskabideetan emandako informazio guztia fitxategi batean sartuko da, hautaketa-prozesurako. Fitxategi horren erabilera eta funtzionamendua bat etorriko da datu pertsonalen babes-arloan Argentinako Errepublikan indarrean dagoen araudiko aurreikuspenekin.

5.- EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA.

5.1.- Izangaiei probak, merezimenduak eta betebeharrak aztertze, honako kide hauek osatuko dute epaimahaia:

- Euskadiren Argentina-Mercosurreko ordezkaria, Sara Pagola, mahaiburua izango da.
- Kanpo Harremanetarako zuzendaria, Leyre Madariaga Gangoiti, kidea izango da.
- Euskal Nazioartekotze Agentziaren finantza eta kudeaketa zuzendaria, Iker Gisasola Marrodan, kidea izango da.
- Euskadiren Argentina-Mercosurreko Ordezkaritzaren erakunde-arduraduna, Mariana Satostegui Etchebarne, idazkaria izango da. Hitza izango du, baina botoa emateko eskubiderik ez.

5.2.- Epaimahaiko kideek ez dute hautaketa-prozesuan parte hartuko, eta horren berri eman beharko diote deialdia egin duen aginteari, baldin eta nolabaiteko familia harremanik, laguntasunik edo ageriko etsaitasunik badute hautagaiekin, edo deialdia argitaratu aurreko bost urteetan haien aukeraketa-probetarako prestakuntza-lanik egin badute.

Era berean, aurreko egoeraren bat tartean izanez gero, interesdunek epaimahaikideak ezetsi ahalko ditu edozein unetan.

5.3.- Epaimahaiak funtzio-autonomia osoz ekingo du, prozeduraren legezkotasuna zainduko du, eta haren objektibotasuna bermatzeko ardura izango du.

Era berean, deialdia ondo garatzeko behar diren erabakiak hartuko ditu, batetik; eta, bestetik oinarrietan aurrekusi gabeko kasuetan erabili beharreko irizpideak ezarriko ditu.

6.- HAUTATZEKO PROZEDURA.

6.1.- Izangaiek deialdian parte hartzeko nahitaezko baldintzak betetzen dituztela egiaztatuko du epaimahai kalifikatzaileak, eta onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda egingo du.

Izangai bakoitzari behar bezala jakinaraziko zaio prozesurako onartu duten ala baztertu, eta, baztertu badute, horretarako arrazoia esango zaio, eta 10 egun naturaleko epea emango erreklamazioak egin ahal izateko, edo prozesuan onar dezaten behar den dokumentazioa aurkezteko. Epe hori igaro eta, hala egokituz gero, aurkeztutako erreklamazioez edo dokumentu-zuzenketez ebatzi ondoren, erreklamatzailerik behar bezala jakinaraziko zaie azkenean prozesurako onartu dituzten ala ez.

6.2.- Hautaketa-prozesuak bi fase izango ditu: oposizio-fasea eta merezimenduen fasea.

Oposizio-fasean hiru ariketa egingo dira: ezagutza-proba bat edo batzuk; proba psikotekniko bat; eta elkarriketa bat epaimahaiarekin.

Merezimenduen fasean aintzat hartuko dira lanpostuaren eginkizunekin lotutako titulu ofizialak, lan-esperientzia, eta eskatzen diren hizkuntzen ezaguera.

6.2.1.- Oposizio-fasean hiru ariketa egin beharko dira:

6.2.1.1.- Lehen ariketa: Lanpostuari lotutako eginkizunekin zerikusi zuzena duten ezagutza eta/edo trebetasunei buruzko probak. Nahitaezkoa eta baztertzailerik izango da.

Gehienez ere 30 puntuko kalifikazioa lortu ahal izango da, eta 20 puntu lortzen ez dituztenak kanporatuta geratuko dira. Gainera, ezagutza-probetan puntuaziorik onena lortu duten 15 lehen izangaiak soilik onartuko dira proba psikoteknikoa egiteko. Gainerako izangaiak (20 puntu lortu badituzte ere) hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira.

6.2.1.2.- Bigarren ariketa: proba psikotekniko bat egingo da izangaia lanposturako eskatutako profilerik egokitzen den neurtzeko. Nahitaezkoa eta baztertzailerik izango da, eta honela kalifikatuko da: GAI edo EZ GAI.

Ezagutza-probak eta proba psikoteknikoa gainditu dituzten izangaiak baino ez dira onartutako elkarriketarako.

6.2.1.3.- Hirugarren ariketa: Elkarriketa bat egingo da izangaiek lanpostua betetzeko dituzten gaitasunak eta trebetasunak ebaluatzeko; elkarriketaren barruan, kasu praktiko bat izango da, izangaiek ahoz erantzun dezaten. Nahitaezkoak eta baztertzailerik izango dira.

Gehienez ere 30 puntuko kalifikazioa lortu ahal izango da, eta 20 puntu lortzen ez dituztenak kanporatuta geratuko dira.

6.2.2.- Merezimenduen fasean, gehienez 40 puntu lortu ahal izango dira, eta arlo hauek hartuko dira aintzat:

- Lanpostuari lotutako zereginekin zerikusia duten gainerako titulazioak, masterrak, irakaskuntza edo ikerketa-jarduna: gehienez ere 10 puntu.
- Lanpostuari lotutako zereginekin zerikusia duten eginkizunetan izandako gainerako esperientzia, gutxienez eskatutako bi urteez gain: gehienez ere 15 puntu.
- Euskara jakitea: gehienez ere 10 puntu.
- Beste hizkuntza batzuk: gehienez ere 5 puntu.

Hizkuntzak jakiteari dagokionez, erakunde ofizial batek emandako titulazioa aurkeztuta soilik egiaztatuta ahal izango da.

6.3.- Hautaprobak hastea eta garatzea.

Identifikazio-ondorioetarako, hautaketa-prozesuan parte hartzen dutenek nortasun-agiria edo pasaportearen eraman beharko dute probetara.

Epaimahai kalifikatzaileak egokitzea behar duten eta eskabidean hala galdatu duten izangai desgaituentzat moldatutako dituzten ariketak egiteko denbora eta bitartekoak, gainerako parte-hartzaileen aukera bera izan dezaten.

Lehen ariketa egin ondoren, behar bezala esango zaie izangaiei ariketa gainditu duten ala ez, eta 10 egun naturaleko epea izango dute erreklamazioak egiteko.

Erreklamazioak ebatzi ondoren, lehen proba horretan lortutako behin betiko emaitza jakinaraziko zaio erreklamazioei bakoitzari.

Lehen ariketa gainditu duten pertsonen hurrenkera-zerrenda egin ondoren, bigarren ariketarako deia egingo zaie lehen ariketan puntuaziorik onena lortu duten 15 izangaiei baino ez, eta bigarren proba non, noiz eta zer ordutan egingo den esango zaie.

Bigarren ariketa egin ondoren (proba psikoteknikoa), proba gainditu duten ala ez esango zaie aurkeztutakoiei. Guztira 10 egun naturaleko epea izango dute behin-behineko erabaki horren aurka egin eta berrikuspena eskatzeko.

Epea igaro ondoren, eta erreklamazioei buruzkoak ebatzita, proba psikoteknikoa behin betiko gainditu duten ala ez esango zaie erreklamazio horien egileei, eta hirugarren ariketa edo elkarrizketa non, noiz eta zer ordutan egingo den jakinaraziko zaie bigarren ariketa gainditu duten pertsonari.

6.4.- Hautagaien azken kalifikazioa oposizio-fasean eta merezimenduen fasean lortutako puntuen batura izango da.

7.- ONARTUAK ETA HAUTATUAK. LANPOSTUA AUKERATZEA ETA ESLEITZEA.

- 7.1.- Epaimahai Kalifikatzaileak hautaketa-prozesuan lortutako puntuazioaren arabera egingo du onartutako izangaien hurrenkera. Izangai bakoitzari zenbaki bat emango zaio bere pribatutasuna bermatzeko.
- 7.2.- Aipatutako behin-behineko zerrenda egin ondoren, epaimahaiak argitara emango du, Euskadiren Argentina-Mercosurreko ordezkariaren ebazpen bidez, eta 10 egun naturaleko epea emango da erreklamazioak aurkezteko. Ebazpenean izangaiek hautaketa-prozesuko fase bakoitzean lortutako puntuazioa agertuko da, eta izangai bakoitza aurrez emandako zenbakiaren bitartez identifikatuko da.
- 7.3.- Epe hori igaro eta, hala egokituz gero, aurkeztutako erreklamazioei buruzkoak ebatzi ondoren, Euskadiren Argentina-Mercosurreko ordezkariak ebazpen bidez argitara emango du onartutako pertsonen behin betiko hurrenkera-zerrenda, bai eta azkenean behin betiko hautatutako pertsonaren izena ere, eta hari hamabost (15) egun naturaleko epea emango zaio, eskatutako eta adierazitako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko eskatzen zaizkion jatorrizko agiriak edo konpultsatutako fotokopiak aurkez ditzan. Hautaketa-prozesu hau gainditu duten pertsonak berariaz emango dute baimena izenak prozesuaren azken ebazpenean argitaratzeko.
Ebazpenean lan-kontratua sinatzeko gehienezko epea adieraziko da.
- 7.4.- Konpultsatutako fotokopiek, baliozkoak izateko, informazio hau jaso beharko dute: data, izen-abizenak, nortasun agiria eta egoitza eta konpultsaren arduradunaren sinadura irakurgarria.
- 7.5.- Lanpostuari dagokion funtzioak betetzeak eragozten duten gaixotasun edo akats fisikoak sufritzen ez dela egiaztatzen duen osasun-ziurtagiria.
- 7.6.- Adierazitako dokumentuak aurkeztea ezinezkoa bada (behar bezala justifikatuta), izangaiek zuzenbidean onargarria den edozein frogabide baliatuta egiaztatu ahal izango du deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituela.
- 7.7.- Adierazitako epearen barruan, eta ezinbestean izan ezean, dokumentazioa aurkezten ez duena, edo dokumentazioaren azterketatik ondorioztatzen denaren arabera hirugarren oinarriak aipatutako baldintzaren bat betetzen ez duena, edo lanpostuari lotutako eginkizunak betetzeko eska daitekeen gaitasun fisikoa edo psikikoa ez duena, ezin izango da kontratatu, eta egindako jarduketa guztiak deuseztatu egingo dira, eskabidea faltsutzeagatik legokiokeen erantzukizuna baztertu gabe.
- 7.8.- Kasu horretan, Euskadiren Argentina-Mercosurreko ordezkariak kontratazio-proposamena egingo du hautaketa-prozesuan onartutako behin betiko zerrendako puntuazio-ordenaren arabera hurrengo den izangaiaren alde.

8.- KONTRATAZIOA.

8.1.- Dokumentuak aurkezteko epea amaituta, hautatutako pertsonari jakinaraziko zaio zer egun eta ordutan formalizatuko den Euskadiko Argentina-Mercosur Ordezkaritzaren zerbitzuko lan-kontratua, ebazpenean adierazitako epean.

8.2.- Hautatutako izangaiak aipatu ebazpenean adierazitako epean izenpetu beharko du lan-kontratua. Epe hori, eskatzen badu, eta arrazoiak badaude, luzatu ahal izango da.

9.- PROBALDIA.

9.1.- Kontratuan probaldi bat xedatuko da, Argentinako Errepublikan indarrean dagoen lan-araudian ezarritako iraupena izango duena.

Probaldi horretan kontratatutako pertsonaren gaitasun edo ezaugarri hauek ebaluatuko dira: Arazoak konpontzea, Erabakiak hartzea, Lanpostuaren ezaguerak, Harremanetarako gaitasuna, Ekimena, Antolakuntza eta Produktibitatea.

9.2.- Hautatutako pertsonak ez badu probaldia gainditzen, Epaimahaiak hurrengo hautagaiaren aldeko kontratazio-proposamen osagarria egingo du, betiere hautaketa prozedura gainditu dutenen behin betiko zerrendako puntuazio-hurrenkeraren arabera. Horretarako, hurrengo hautagaia aldarrikatuko da aukeratutzat.

OINARRIEN I. ERANSKINA

ENPRESA-ARLOKO ARDURADUN LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK

1.- Egitekoa eta eginkizunak

1.1.- Lanpostuaren egitekoa:

Delegazioaren zerbitzuak eskatzen dituzten entitate publiko eta pribatuei, Argentinan garatu nahi duten proiektua martxan jartzeko bete behar dituzten baldintzak eta urratsei buruz informazioa ematea, erakunde publiko eta pribatuen aurrean gauzatu behar dituzten ekintzak erraztuz. Halaber, Argentinako errealitateari buruzko txostenak aztertu, landu eta aholkuak eman administrazio, ekonomia eta produkzio-sektorearen esparruen gainean.

1.2.- Eginkizun nagusiak:

- a) Euskadiren eta Argentinaren errealitate politiko, ekonomiko eta administratiboa ezagutzea, agente ekonomiko eta instituzionalekin harreman iraunkorrak finkatuz. Halaber bi herrialdeen eragileen arteko truke-proiektuak garatzeko informazio ekonomiko eta komertzial garrantzitsu eta espezializatua eskaini ahal duten Argentinako eta Euskadiko erakunde publiko edo pribatuekin harremanak mantentzea.
- b) Argentinako merkatuaren azterketa eta azterlanak osatzea, sektore egokien identifikazioa gauzatzeko eta Euskadiren eta Argentinaren arteko aliantza estrategikoak burutzeko.
- c) Argentinan kokatuta dauden euskal enpresen nazioartekotze proiektuen azterketa eta diseinua egitea. Halaber lizitazio publikoen esleipena, enpresen kokapena, lankidetzaren hitzarmenen formalizazioa, laguntza publikoaren lorpena eta bestelako jarduerak errazteko herrialdearen prozedurak ezagutzea.
- d) Argentinako eta Euskadiko enpresen arteko bitartekaritza proiektuak prestatzea.
- e) Akordioak eta hitzarmenak gauzatzeko bitartekaritza tresnak diseinatzea.
- f) Nazioartekotzearen, bai eta honen sarrerari eta formalizazioari laguntzearen aldeko finantza-tresnak aztertzea.
- g) Prospekzio, promozio edo merkataritza edo enpresa-proiektuen bilerak antolatzea.
- h) Misio zuzenak eta alderantzizkoak antolatu eta kudeatu.
- i) Euskadi eta Argentinaren erakunde publiko edo pribatuen artean lankidetzaren sustatzeko jarduerak zabalitzen dituzten jokaera eremu eta aukerak antzematea. Horrez gain, eragile horiei beharrezko informazioa bidaliko zaie baloratzeko eta aukeratutako proiektuak martxan jartzeko.

- j) Argentinan dauden euskal interesak defendatzeko Delegazioak martxan jartzen dituen jarduerekin kolaboratu.
- k) Zeharka bermatzea neurriak hartuko direla jarduera guztietan genero-ikuspegia jasotzeko, eta hizkuntzaren erabilera ez-sexista egitea sortzen den dokumentazio guztian.

2.- Ordainsariak: 822.598 Argentinako peso gordin urtean kontzeptu guztien truke.

3.- Kontratuaren iraupena: Mugagabea (betiere probaldia gainditu bada).

II. ERANSKINA

DEIALDIAN PARTE HARTZEKO ESKABIDE-ORRIAREN EREDUA

Deitutako lanpostuaren izena
ENPRESA-ARLOKO ARDURADUNA
15336 erreferentzia

Eskatzailearen datuak:	
Abizenak:	
Izena:	Nortasun-agiri nazionalaren zenbakia (NAN) edo pasaporteak:
Helbidea	
Posta elektronikoa:	Harremanetarako telefonoa:
Desgaitasuna baduzu, denboraren eta ariketen gauzapenerako baliabideen egokitzapena beharko duzu? (ikus 6.3 atala):	
Bai: ☐ Ez: ☐	

ADIERAZITAKO NAHITAEZKO BALDINTZAK (aipatutako egiaztagiria erantsi (ikus 3.2. puntua))
1.- Argentinan lan-kontratua harpidetzeko gaitasun egiaztagiria.
Gako Bakarreko Lan Identifikazio ziurtagiria aurkeztu.
Ziurtagiria ez izatearen kasuan (Argentinan bizitoki permanentea ez duten atzerritarrak) Argentinako zuzenbidearen arabera kontratua gaitzen duen legeko bizilekuaren egiaztapena aurkeztu behar da, <u>bizileku mota, bidalketaren data eta baliotasuna adierazten.</u>

2. Unibertsitate-titulu ofiziala		
Tituluaren izena	Urte-kopurua	
3.- Erakunde publikoetan, publiko-pribatuetan edo pribatuetan izandako bi urteetako lanbide-esperientziaren egiaztagiria		
Lanpostuaren izena	Hasiera-data	Amaiera-data

4.- Curriculum Vitae-a (erantsi)

ADIERAZITAKO MEREZIMENDUAK (ikus 6.2.2. puntua eta, hala badagokio, erantsi egiaztagiriak 4.3. puntuaren arabera)
--

Prestakuntza

a.- Gainerako titulazio ofizialak, masterra, irakaskuntza edo ikerketa-jarduna	
Izena	Urte-kopurua

b.- Gainerako lanbide-esperientziaren egiaztatzea		
Lanpostuaren izena	Hasiera-data	Amaiera-data

c.- Hizkuntzak	
Hizkuntza	Ziurtagiri ofizialeko titulua

Eskabide honekin batera, merezimenduen eta ebaluatzeko betebeharren ziurtagirien eta frogagirien fotokopiak erantsiko dira (ez da beharrezkoa fotokopiak konpultsatzea).

Page Personnel-ek datuen tratamenduaren ardura hartuko du izangaiek eskabideetan emandako informazioari dagokionez, eta bat etorriko da datu pertsonalen babes-arloan Argentinako Errepublikan indarrean dagoen araudiko aurreikuspenekin.

Beherago sinatzen duen pertsonak deialdian onartua izatea eskatzen du, eta eskabide honetan aipatutako datuak egiazkoak direla adierazten du; eskabide honetan adierazitako datu guztiak agiritz frogatzeko konpromisoa ere azaltzen du.

..... (e)n, (e)an

Sinadura